## Ekonomia Sustatzeko Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 139/2014 FORU DEKRETUA, azaroaren 18koa. Haren bidez, Berrikuntza Sustatzeko Plana 2015 arautzen duten oinarriak eta lehen deialdia onartzen dira.**

Bizkaian berrikuntzarako politikak egindako ahaleginak eta lortutako emaitzek pizgarria izan behar dute orain arte herri administrazioak eta eragile pribatuek egindako ahalegina sendotzeko; izan ere, enpresa-sare lehiakorra lehentasuna enpresa berrikuntzari ematen dioten eragin handiko politiken bidez baino sortzen ez delakoan dago administrazioa; hura da arriskuak saihesteko eta globalizazioak ematen dituen aukerak baliatzeko bide nagusia.

Gainera, berrikuntzak are garrantzi handiagoa hartzen du krisialdi ekonomikoko garaiotan. Enpresek zailtasunak dauzkate produkzio jarduera finantzatzeko dauzkaten finantzazio murrizketa handiengatik eta produktuen barne eta kanpoko eskariaren jaitsiera handiengatik. Baina eszenatoki zail horretan epe laburreko premiak eta epe luzean berrikuntzan inbertitzeko dauzkagun beharrak uztartzeko gai izan behar dugu.

Hori da, hain zuzen ere, laguntzen Dekretu honen helburua. Enpresetatik beraietatik izaera berritzailearekin sortutako proiektuak laguntzea du xede, baldin eta gehienbat lehiakortasunerako gaitasuna hobetzeko efikazak badira eta enpresaren negozio-ereduarekin eta estrategiarekin koherenteak badira.

Arrazoi horregatik, laguntzen plan hau enpresa-jardueraren edozein eremutako berrikuntza-proiektuetara irekita dago (produktua, prozesua, antolaketa, merkatua, pertsonen partaidetza...) Enpresarako benetako kostuetarako laguntza ematen du (kanpoko gastuak, inbertsioak eta langileria-gastuak), enpresaren gaitasun berritzaileak sorrarazten dituen proiektuei esker enpresa hori Bizkaiko gizartean gaur egun jasaten ari den egoera ekonomiko txarrean lehiatu ahal izateko askoz posizio hobean jartzen bada.

Berrikuntza Sustatzeko 2015eko Plan honek, enpresek sartuta daudeneko berrikuntzaren bitartez lehiakortasuna hobetzeko jardueren multzoa barnean hartuko duten baterako proiektuak plantea ditzatela lortu nahi da, proiektu koherentea eratu ahal izan dezaten. Plan honetatik kanpo daude berariazko bultzada behar duten enpresa-jarduerak (nazioartekotzea, kudeaketako tresnak, sormen-industriak, autonomoentzako finantza-laguntza).

Dekretu hau eta lortu nahi dituen helburuak Ekonomia Sustatzeko Sailak sustatutako jarduera-multzoaren zati dira. Izan ere, programak eta zerbitzuen garapenean sustatzen ditu jarduera horiek, aberastasuna sortzen laguntzeko, Bizkaiko enpresen artean lehiakortasun iraunkorra sustatuta.

## Departamento de Promoción Económica

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 139/2014, de 18 de noviembre por el que se aprueban las bases reguladoras y primera convocatoria del Plan de Promoción de la Innovación 2015.**

El esfuerzo de la política de innovación llevado a cabo en Bizkaia y los resultados alcanzados tienen que ser un incentivo para reforzar el esfuerzo realizado hasta el momento por Administración Pública y agentes privados, con el convencimiento de que la creación de un tejido empresarial competitivo sólo se consigue mediante políticas de alto impacto que ponen el centro de atención en la innovación empresarial; la principal vía para sortear los riesgos y aprovechar las oportunidades que ofrece la globalización.

La innovación cobra, además, un valor más importante en estos momentos de crisis económica. Las empresas tienen dificultades por las serias restricciones de financiación que están encontrando para financiar su actividad productiva y por la disminución notable de la demanda, tanto interna como externa, de productos. En este difícil escenario tenemos que ser capaces de armonizar las exigencias de corto plazo con las necesidades de inversión en innovación que precisamos en el largo plazo.

Ese es precisamente el objetivo de este Decreto de ayudas. Pretende apoyar proyectos nacidos de las propias empresas con un carácter innovador inequívoco pero que, principalmente, sean eficaces en la mejora de la capacidad competitiva y coherentes con el modelo de negocio y la estrategia de la empresa.

Por este motivo, éste es un plan de ayudas abierto a proyectos de innovación en cualquier ámbito de la actividad empresarial (producto, proceso, organización, mercado, participación de las personas…) que apoya los costes reales para la empresa (gastos externos, inversiones y gastos de personal) en aquellos casos en que la capacidad innovadora de la empresa dé lugar a proyectos que la sitúen en una posición notoriamente mejor, para competir en las circunstancias económicamente adversas que está viviendo la sociedad de Bizkaia.

Este Plan de Promoción de la Innovación 2015 persigue que las empresas planteen proyectos unitarios que engloben el conjunto de actuaciones para la mejora de la competitividad mediante la innovación en las que estén inmersas, de forma que constituyan un proyecto coherente. Quedan fuera de este plan aquellas actuaciones empresariales que requieren un impulso específico (internacionalización, herramientas de gestión, industrias creativas, apoyo financiero a autónomos).

Este Decreto y los objetivos en él perseguidos, forman parte del conjunto de actuaciones impulsadas por el Departamento Promoción Económica en su desarrollo de programas y servicios, para alcanzar la misión del Departamento de contribuir a la creación de riqueza mediante el impulso de la competitividad sostenible en el ámbito empresarial de Bizkaia.

cve: BAO-BOB-2014a230

Programa hau Euskadiko FEDER 2014-2020 Programa Eragilearen bidez ere finantzatu da, FEDER Landa Garapeneko Europako Funtsaren arloan. Une oro begiratuko da europar politikak bete daitezen; batez ere, honako alderdi hauetan: ingurumena, aukera-berdintasuna, kontratazio publikoa eta europar kofinantziazioaren publizitatea.

Bestalde, genero ikuspegiari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak berdintasunerako politikak ezartzeari buruzko Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Foru Plana ezartzeko konpromisoa hartu du. Bada, konpromiso hori bete eta Berrikuntza Sustatzeko Plan barruan genero ikuspegia sartzeko asmoz, aldez aurretik eraginaren ebaluazioa egin da, eta beharrezkoak ziren neurriak ezarri dira. Hori guztia, betiere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraiki.

Adierazitakoa dela bide, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak proposatu eta Foru Aldundi honen Gobernu Kontseiluak 2014ko azaroaren 18ko batzarraldian eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DA:

I. TITULUA

**OINARRIZKO EZAUGARRIAK**

**1. artikulua.—*Foru Dekretuaren xedea***

Foru Dekretu honen xedea da 2015. urteko Berrikuntza Sustatzeko Plana arautzen duten oinarriak eta planean jasotako dirulaguntzen lehen deialdia onartzea.

**2. artikulua.—*Helburuak***

Laguntzen programa honen asmoa Bizkaiko enpresen berrikuntzako eta lehiakortasuneko gaitasuna areagotzea da, modu iraunkorrean eta ingurunean integratuta.

Xede horrekin erakunde onuradunei diru-laguntzak eskaintzen dizkie.

**3. artikulua.—*Entitate onuraduna***

1) Erakunde bakar batek garatutako proiektuak:

Dekretu honetan araututako diru-laguntzak eskuratu ahal izango dituzte berezko nortasun juridikoa duten enpresek, jarduera nagusia hauetariko bat badute: industria, eraikuntza, industriari lotutako zerbitzuak eta handizkako merkataritza (I. eranskinean ageri dira 2009ko Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionaleko (EJSN) epigrafeetatik diru-laguntza jaso dezaketenak).

Erakunde onuradunak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

b) Gutxienez ekoizpen zentro bat edo balio erantsi handiko zentro bat Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

c) 6 eta 100 pertsona arteko plantilla edukitzea.

Plantillakotzat joko dira enpresaren jarduerari atxikita dauden baina euren izaeragatik Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta emanda egon ezin diren langile autonomoak.

Ez dira plantillakotzat joko atzerriko instalazioetan lan egiteko kontratatu diren langileak.

d) Honako bi muga hauetako bat, gutxienez, ez gainditzea, aurkeztutako azken Sozietate Zergako aitorpenaren arabera:

— Urteko negozio kopurua: 20.000.000 euro.

— Balantze orokorra: 20.000.000 euro.

a), b) eta c) baldintzak, gutxieneko pertsona kopuruari buruzkoak, eskabidea aurkezten den unean egiaztatu behar dira, eta ebazpena eman eta ordainketa egin arte eutsi behar zaie. Gehieneko pertsona kopuruari buruzko c) baldintza eta d) baldintza, aldiz, eskabidea aurkezten denean egiaztatu behar dira.

e) Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea.

El presente programa cuenta con cofinanciación del Programa Operativo del País Vasco 2014-2020 del Fondo Europeo de Desarrollo Regional, FEDER. Se velará en todo momento por el cumplimiento de las políticas comunitarias, especialmente en materia de medioambiente, Igualdad de oportunidades, contratación pública y publicidad de la cofinanciación europea.

Por otro lado, conforme al compromiso adquirido por la Diputación Foral de Bizkaia en el marco del Plan Foral para la Igualdad de mujeres y hombres en Bizkaia, referido a la implementación de políticas de igualdad, y con el fin de incorporar al Plan de Promoción de la Innovación la perspectiva de género, se ha realizado la correspondiente evaluación previa de impacto, adoptándose las medidas pertinentes; todo ello, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 18 y siguientes de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Promoción Económica y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral, en reunión de 18 de noviembre de 2014,

SE DISPONE:

TÍTULO I

**CARACTERÍSTICAS BÁSICAS**

**Artículo 1.—*Objeto del Decreto Foral***

Constituye el objeto del presente Decreto Foral aprobar las bases reguladoras y la primera convocatoria de las subvenciones del Plan de Promoción de la Innovación 2015.

**Artículo 2.—*Objetivos***

Mediante el presente programa de ayuda se persigue incrementar la capacidad de competir e innovar de las empresas de Bizkaia, de forma sostenible e integrada en su entorno.

Con esta finalidad ofrece subvenciones a las entidades beneficiarias.

**Artículo 3.—*Entidades beneficiarias***

1) Proyectos desarrollados por una única entidad:

Podrán acceder a las subvenciones reguladas en este Decreto las empresas con personalidad jurídica propia cuya actividad principal se encuadre en los sectores de la Industria, Construcción, Transporte, Servicios conexos con la Industria y Comercio al por mayor, de manera que su actividad principal quede integrada dentro de los epígrafes de la C.N.A.E. 2009, —Clasificación Nacional de Actividades Económicas— recogidos en el Anexo I.

Las entidades beneficiarias deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Tener su domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Tener al menos un centro productivo, o de alto valor añadido en el Territorio Histórico de Bizkaia.

c) Tener una plantilla entre 6 y 100 personas, en equivalentes anuales a jornada completa.

Se considerará perteneciente a la plantilla el personal autónomo adscrito a la actividad de la empresa que, por su condición, no pueda estar dado de alta en el Régimen General de la Seguridad Social.

No se considerará perteneciente a la plantilla al personal contratado para trabajar en plantas en el extranjero.

d) No superar, al menos, uno de los dos límites siguientes, según último impuesto de sociedades presentado:

— 20.000.000 euros de volumen anual de negocio.

— 20.000.000 euros de balance general.

Los requisitos a), b) y c) en lo referido al límite inferior de personas, deberán acreditarse en el momento de presentación de la solicitud y mantenerse hasta el momento de la resolución y el pago. El requisito c) en lo referido al límite superior de personas y el d) deberán acreditarse en el momento de presentación de la solicitud.

e) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.

cve: BAO-BOB-2014a230

Baldintza hori erabakia eman eta ordainketa egin arte mantendu behar da.

f) Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

g) Ez dagoela Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 12. artikuluan azaltzen diren inguruabarretako batean ere.

e) f) eta g) baldintzak automatikoki bete beharko dira, eta kasuan kasuko inguruabarrak gertatzen diren bitartean iraungo dute, 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2) Lankidetzan garatutako proiektuak:

Lankidetzako proiektuak aurkezten dituzten erakundeek ere eska ditzakete Dekretu honetan jasotako diru-laguntzak, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte: «Lankidetza proiektua» esatean, hau esan nahi da: gutxienez bi erakundek proiektu hori sortzeko eta/edo garatzeko parte hartzen dute, proiektua aplikatzeko laguntza emanez. Horrez gain, arriskuak eta emaitzak partekatzen dituzte. Inoiz ez dira lankidetza proiektutzat hartuko enpresen arteko bezero-hornitzaile harremanak.

Proiektuan parte hartzen duten erakunde guztiak onuradunak direla ulertuko da honako baldintza hauek betetzen direnean:

a) Laguntzaren ondorioetarako mintzakide bakarra izango den erakunde bat liderra izatea.

b) Proiektua lankidetzan aurkezten duten erakunde guztiek sinatuta egon beharko du eskabideak, eta haietako bakoitza joko da eskatzailetzat. Eskabidean, erakunde bakoitzak egin behar dituen erantzukizunak eta jarduerak jasoko dira, baita proiektuarekin zerikusia duten erakundeetako bakoitzari dagozkion kostu eta sarreren banaketarako aurre ikuspena ere.

c) Artikulu honen 1 idatz-zatian xedatutakoaren arabera, erakunde batek berak bakarrik garatutako proiektu bat aurkeztu izan balu, onuraduna bera bakarrik izan zitekeen erakundea izango da erakunde liderra.

d) Erakunde liderra proiektuaren jardueren portzentajerik handiena egiten duen eta gasturik handiena daukan erakundea izan behar da elkartearen barruan.

e) Eskabidean aurkeztutakoaren arabera, proiektuaren jardueren eta egindako gastuaren %80a, gutxienez, beraiek bakarrik Dekretu honen onuradun izan litezkeen erakundeek egin behar dute, artikulu honetako 1. idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

f) Elkarteko erakunde guztiek artikulu honetako 1. idatz-zatian ezarritako e), f) y g) betekizunak bete beharko dituzte.

Aurreko baldintzetakoren bat betetzen ez bada, proiektua ezetsi egingo da, ez delako lankidetza-proiektutzat joko.

Elkarteko liderra den erakundearen erantzukizuna izango da eskaera aurkeztea eta diru-laguntza osorik justifikatzeko agiriak aurkeztea, proiektuan elkarlanean aritzen diren erakunde guztien agiriak batuz.

Multzoa hartuta egingo da proiektuaren ebaluazioa. Gero, proiektua aukeratzen bada, laguntzaren esleipena eta proiektuari emandako diru-kopuruak proiektuaren garapenean parte hartzen duten erakundeetako bakoitzari egingo zaie eta ordainduko zaizkie, bakoitza banan-banan onuraduna bailitzan.

Arlo guztietatik kanpo geratzen dira sozietate publikoak, zuzenbide publikoko erakundeak, ondasun erkidegoak eta sozietate zibilak.

Diru-laguntzaren bat jasotzen duten erakunde onuradunek Diru-laguntzei buruzko Foru Arauaren 13. eta 41. artikuluetan xedatutakoa bete beharko dute. Bereziki, jasotako fondoak zertan erabili diren frogatzen duten agiri guztiak gorde beharko dituzte, agiri elektronikoak barne, finantza-kontrolaren eginkizunak dituzten organoen egiaztapen-jardueren eta kontrol-jardueren xede izan baitaitezke, eta haiei lankidetza eskaini beharko diete.

Este requisito deberá mantenerse hasta el momento de la resolución y el pago.

f) No haber sido sancionadas, administrativa o penalmente, por incurrir en discriminación por razón de sexo, según lo previsto en la ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

g) No encontrarse incursa en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral de Subvenciones.

Los requisitos e), f) y g) se apreciarán de forma automática y deberán subsistir mientras concurran las circunstancias que, en cada caso, las determinen, de acuerdo a lo establecido en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005.

2) Proyectos desarrollados en colaboración:

También podrán acceder a las subvenciones contempladas en este Decreto, entidades que presenten proyectos en colaboración o cooperación. Se entiende como proyecto en colaboración aquél en el que al menos dos entidades participan en la concepción y/o desarrollo del mismo, contribuyendo a su aplicación y compartiendo riesgos y resultados. No se considerará en ningún caso como colaboración las relaciones de contratación cliente-proveedor entre empresas.

Se entenderá que todas las entidades participantes en el proyecto son beneficiarias cuando se cumplan las condiciones siguientes:

a) Estarán lideradas por una entidad que será la interlocutora única a efectos de la ayuda.

b) La solicitud estará suscrita por todas las entidades que presentan el proyecto en colaboración, de modo que cada una de ellas será considerada solicitante de la ayuda. En la solicitud se reflejarán las responsabilidades y actividades a realizar por cada entidad, así como la previsión de reparto de costes e ingresos imputables a cada entidad relacionados con el proyecto.

c) La entidad líder será una entidad que por sí misma podría ser beneficiaria del presente Decreto en el caso de presentar un proyecto desarrollado únicamente por ella, conforme a lo establecido en el apartado 1 del presente artículo.

d) La entidad líder será la entidad de la agrupación que desarrolle un mayor porcentaje de las actividades del proyecto e incurra en un mayor gasto.

e) Al menos un 80% de las actividades del proyecto y el gasto incurrido,según lo presentado en la solicitud, será ejecutado por entidades que por sí mismas podrían ser beneficiarias del presente Decreto, conforme a lo establecido en apartado 1 del presente artículo.

f) Todas las entidades de la agrupación cumplirán los requisitos e), f) y g) establecidos en apartado 1 del presente artículo.

El incumplimiento de cualquiera de las condiciones anteriores dará lugar a la desestimación del proyecto por no considerarse proyecto en cooperación.

La entidad líder será responsable de la presentación de la solicitud y de la presentación de la documentación para la justificación de la totalidad de la subvención, reuniendo la documentación de cada una de las entidades que colaboran en el desarrollo del proyecto.

La evaluación del proyecto se realizará de forma conjunta. En el caso de que el proyecto resultase seleccionado, el otorgamiento de la ayuda y el pago de las cantidades otorgadas se realizará de forma individual a cada una de las entidades que colaboran en el desarrollo el proyecto, que serán consideradas beneficiarias de forma individual.

Quedan excluídas en todos los casos las Sociedades Públicas, Entidades de Derecho Público, las comunidades de bienes y las sociedades civiles.

Las entidades beneficiarias de las subvenciones vendrán obligadas al cumplimiento de lo establecido en los artículos 13 y 41 de la Norma Foral de Subvenciones. En particular, tendrán obligación de conservación de los documentos justificativos de la aplicación de fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control y obligación de colaboración los órganos que tengan atribuidas funciones de control financiero.

cve: BAO-BOB-2014a230

**4. artikulua.—*Diruz lagun daitekeen egitatea***

Diruz lagundu ahal diren egitateak hauek dira: erakundearen lehiakortasuna edozein arlotan (prozesua, produktua, antolaketa, parte-hartzea, merkatua, jabetzaren babesa) berrikuntza teknologikoko nahiz ez-teknologikoko proiektuen bidez hobetzea helburu duten jarduerak, baldin eta erakundearen negozio-ereduarekin koherenteak badira eta eragin handia badute.

Erakunde onuradunek berrikuntzaren bitartez lehiakortasuna hobetzeko jardueren multzoa barnean hartuko duten baterako proiektuak plantea ditzatela lortu nahi da, proiektuek multzo koherentea eratu ahal izan dezaten.

Diruz lagundu ahal diren proiektuek barnean hartu ahal dituzten ekintzen xedeak hauek izan ahal dira:

— Produktu berriak diseinatzea edo garatzea, edo lehendik zeuden produktuen prestazioak hobetzea, merkatuan txertatu ahal izateko.

— Ekoizpen prozesuetan berrikuntzak txertatzea, edo existitzen den beste baten etapetako batean hobekuntza nabarmenak sartzea, betiere xedea balio erantsi handiagoa ematea bada.

— Antolakuntzaren eraldaketa, pertsonen eta taldeen protagonismoan oinarrituta, antolakuntzaren eta erakundea kudeatzeko moduen aldaketa-prozesu baten bitartez, hala erakundeko pertsonek modu zabal eta anitzean parte har dezaten proiektu horien gogoeta eta abiarazte prozesuetan.

— Berrikuntza, merkatu berrietara irekitzeko eta produktu eta zerbitzuak merkaturatzeko bide berriak sortzeko.

— Europako, nazioarteko edo atzerrian estatuko patenteen eskabideak aurkeztu eta izapidetzea, baita erabilgarritasun ereduak edo diseinuak ere (erkidegokoa, nazioartekoa edo atzerrian estatukoa).

— Aurretik egindako azterlanak, enpresak lehiakortasuna handitzeko tresna gisa eskuratzeko, betiere, proiektua berritzailea bada enpresarentzat.

Diru-laguntza jasoko duten proiektuak eskabidea egin duen enpresan aplikatu eta ezartzeko modukoa izango da, enpresa bera izango da onuraduna eta bere jarduerarekiko koherentzia mantenduko da, eta soilik hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat Bizkaiko Lurralde Historikoko ekoizpen zentroetan zuzenean aplikatzeko diren jardueren gastuak.

Nolanahi ere, proiektuak sexu arrazoiengatik ez dira baztertzaileak izango, eta ahal dela, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatu beharko dituzte.

Honako proiektu hauek ez dira diruz lagunduko:

— Erakundearentzat berrikuntzarik ekartzen ez duten proiektuak.

— Kalitate kontrolari lotutako proiektuak, eta produktuak egokitzea merkatuak edo aplikatu beharreko arauek ezarritako berariazko betekizunetara.

— Produktuaren birdefinizio estetikoa edo industri konplexutasunik gabeko aldaketa, markaren kudeaketa edo nortasun korporatiboaren kudeaketa beste helbururik ez duten proiektuak.

— Industria-diseinuaren arloko proiektuak, ez dituztenak industria-sektorearen eremuan espezializatuta dauden enpresek garatu (CNAE 2009 7410.2 epigrafean jasotzen dira).

— Edozein ziurtagiri lortzeko ekintzak.

— Plan estrategikoak, merkataritza-planak edo antzekoak eta haien berrikuspenak idazteko aholkularitza.

— Merkatu-azterketak.

— Produktuaren bizi-zikloari buruzko azterketak.

**Artículo 4.—*Hecho subvencionable***

Se considera hecho subvencionable las actuaciones orientadas a mejorar la competitividad de la entidad solicitante mediante proyectos de innovación, tanto tecnológica como no tecnológica, en cualquier área de la entidad (proceso, producto, organización, participación, mercado, protección de la propiedad…) coherentes con el modelo de negocio de la entidad y con alto impacto.

Se pretende que las entidades beneficiarias planteen proyectos unitarios que engloben la totalidad de sus actuaciones de mejora de la competitividad a través de la innovación y que constituyan un conjunto coherente.

Los proyectos subvencionables podrán contener, entre otras, acciones para:

— El diseño o desarrollo de nuevos productos o mejoras sustanciales en las prestaciones de los ya existentes, para su incorporación a mercado.

— La introducción de novedades en sus procesos productivos o mejoras sustanciales en alguna de las etapas de procesos existentes, siempre que tengan como objetivo dotarlo de un mayor valor añadido.

— La transformación organizacional basada en el protagonismo de las personas y los equipos, a través un proceso de cambio organizativo y en las maneras de gestionar la organización que suponga una participación amplia y plural de las personas de la organización en los procesos de reflexión y puesta en práctica de estos proyectos.

— La innovación para apertura a nuevos mercados y generación de nuevas vías de comercialización de los productos y servicios.

— La presentación y tramitación de solicitudes de patentes europea, internacional o nacional en el extranjero, de modelos de utilidad o de diseño comunitario internacional o nacional en el extranjero.

— Estudios previos para el análisis de la adquisición de empresas como herramienta para aumentar la competitividad, siempre que el proyecto suponga una innovación para la empresa.

Los proyectos objeto de subvención deberán ser de aplicación e implementación en la entidad solicitante, residiendo el beneficio de los mismos en la propia entidad y manteniendo, además la coherencia con el objeto de su actividad, considerándose subvencionables sólo los gastos de actividades con aplicación directa en los centros del Territorio Histórico de Bizkaia.

En todo caso, los proyectos no serán discriminatorios por razón de sexo y deberán procurar la eliminación de roles y estereotipos en función del sexo.

No se considerarán como hecho subvencionable los siguientes proyectos:

— Proyectos que no supongan una novedad para la entidad.

— Proyectos relativos al control de calidad, así como la adaptación de productos a los requisitos específicos impuestos por el mercado o por la normativa que le sean de aplicación.

— Proyectos que supongan una simple redefinición estética del producto, modificación del producto sin complejidad industrial, gestión de la marca o identidad corporativa.

— Proyectos de diseño industrial que no esten desarrollados por empresas especializadas en el ambito del diseño industrial recogidas en el epígrafe del CNAE 2009 7410.2.

— Acciones destinadas a cualquier tipo de certificación.

— El asesoramiento para la redacción de planes estratégicos, planes comerciales o similares y sus sucesivas revisiones.

— Estudios de mercado.

— Estudios del ciclo de vida del producto.

cve: BAO-BOB-2014a230

— Plangintzarako pakete informatikoak (ERP, CRM, GMAO, etab. gisakoak) garatzeko proiektuak.
— Kudeaketa-sistemen ezarpena.
— Azoketara joatea, katalogoak, web orriak eta merkatuaren azterketak.
— Enpresa nazioartekotzeko proiektuak.
— «Funtsezko ikerketako» edo «industria ikerketako» proiektuak, «Ikerketa eta garapen eta berrikuntzako estatu laguntzei buruzko erkidegoko esparruak» egindako definizioaren arabera.
— Aktibo finkoan soilik inbertitzeko diren proiektuak.
— Defentsa legalak, eta beste erakunde fisiko edo juridiko batzuek patentearen eskabideari, erabilgarritasun ereduari edo diseinuari aurkeztutako alegazioen erantzunak edo aurkakotasunak.
— Bizkaiko Lurralde Historikoko zentroetan aplikatu ezin diren proiektuak.
— Definizioan (argitasuna, plangintza, egikaritzeko metodologia...) edo proiektuari esleitutako baliabideetan (baliabide teknikoak, giza taldea, zuzkidura ekonomikoa...) gabezia argiak dauzkaten proiektuak.
— Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailaren bestelako programa edo jarduketa arloen barruan sar daitezkeen jarduerak.
— Ekonomia Sustatzeko Sailaren helburuekin bat ez datozen edota Ekonomia Sustatzeko Sailaren eskuduntzen eremuan sartzen ez diren jarduerak.

**5. artikulua.—*Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak***

Laguntza egitarau honetan aurkeztutako proiektuen diruz laguntzeko moduko oinarria zenbatekotzeko, proiektuaren aurrekontua hartuko da kontuan. Aurrekontuak kontzeptuka desglosaturik egon behar du.

Zehazki, honakoak izango dira diruz lagun daitezkeen gastuak:

— Proiektuari zuzenean lotuta dauden kanpoko gastuak, diruz lagundu ezin diren gastutzat adierazita daudenak izan ezik.
— Aurkeztutako proiektuak iraun bitartean, proiektua burutzeko lanari dagozkion barneko langileria-gastuak. Kontzeptu horren barruan sartuko dira soilik soldatek eta gizarte kargek (Gizarte Segurantza) erakunde eskatzaileari eragiten dizkioten langileriaren gastuak. Kasu batean ere ez da onartuko orduko 35 euro baino gehiagoko kosturik, ezta 40 ordu baino gehiago ere, pertsona eta hila bakoitzeko.

Ondoko hauek ezin izango dute diru-laguntza jaso:

— Zergak eta tasak, BEZa bazter utzita (BEZa berreskuratu ezin den kasuetan ere bai), eta jabetza industriala babesteko prozesuei lotutako tasak kanpo utzita.
— Zeharkako gastuak.
— Gastu orokor osagarriak, adibidez administrazio gastuak, dietak, kontsumo orokorrak (energia, ura, mezulariak, posta, garbiketa, telefonia, segurtasuna, bulegoko materiala...).
— Bidaien, otorduen eta mantenuaren gastuak.
— Aktibo finkoak alokatzeko gastuak.
— Inbertsioak ibilgetu materialean, ekipamendua eskuratzeko.
— Lizentzia informatikoak eskuratzeko gastuak.
— Ekonomia Sustatzeko Sailaren beste laguntza-programa batzuetan diruz lagun daitezkeen beste gastu guztiak, eta bereziki, premie, xertatu:adi bilgune metodologiak ezartzeko aholkularitza gastuak.

— Proyectos destinados a implementar paquetes informáticos de planificación (tipo ERP, CRM, GMAO…).
— Implantación de sistemas de gestión.
— Asistencia a ferias, catálogos, páginas web y estudios de mercado.
— Proyectos dirigidos a la internacionalización de la empresa.
— Proyectos de «Investigación fundamental» o «Investigación industrial» de acuerdo a la definición del «Marco comunitario sobre ayudas estatales de investigación y desarrollo e innovación».
— Los proyectos únicamente de inversión en activo fijo.
— Defensas legales y respuestas a las alegaciones u oposiciones de otras entidades físicas o jurídicas a la solicitud de la patente, modelo de utilidad o diseño.
— Proyectos que no sean de aplicación en un centro del Territorio Histórico de Bizkaia.
— Proyectos que presenten deficiencias nítidas en su definición (claridad, planificación, metodología de ejecución…) o en los recursos asignados al proyecto (medios técnicos, equipo humano, dotación económica…).
— Las actividades que puedan estar comprendidas dentro de otros planes, programas o áreas de actuación del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia.
— Las actividades que no sean coherentes con los objetivos del Departamento de Promoción Económica y/o no se encuadren dentro del ámbito de competencias del Departamento de Promoción Económica.

**Artículo 5.—*Gastos subvencionables***

Para la cuantificación de la base subvencionable de los proyectos presentados a este programa de ayudas se atenderá al presupuesto de la actividad, desglosado por conceptos de gasto, presentado por la solicitante.

En particular, se considerarán subvencionables los siguientes costes:

— Gastos externos directamente vinculados al proyecto, excepto los indicados como gastos no subvencionables.
— Gastos internos del personal destinado al proyecto, en lo que se refiere a trabajo dedicado al proyecto presentado durante el tiempo que este dure. Se entenderán en este concepto aquellos que correspondan a los gastos directos de personal por costes salariales y cargas sociales por cuenta de la entidad solicitante (seguridad social). En ningún caso se admitirán costes horarios superiores a 35 euros/hora, ni más de 40 horas por persona y mes.

No se considerarán subvencionables los siguientes conceptos:

— Impuestos y tasas, incluyendo el IVA (incluso en los casos en los que éste no pueda ser recuperado) y excluyendo las tasas ligadas a los procesos de protección de la propiedad industrial.
— Gastos indirectos.
— Gastos generales suplementarios tales como gastos de administración, dietas, consumos generales (energía, agua, mensajería, correo, limpieza, telefonía, seguridad, material de oficina...).
— Gastos de viajes, comidas y manutención.
— Gastos de alquiler de activos fijos.
— Inversiones en inmovilizado material para adquisición de equipamiento.
— Gastos de adquisición de licencias informaticas.
— Cualesquiera otros gastos subvencionables en otros programas de ayudas del Departamento de Promoción Económica y, particularmente, los gastos de consultoría para la implantación de las metodologías premie, xertatu: adi bilgune.

cve: BAO-BOB-2014a230

— Edozein kudeaketa-sistema ezartzeko gastuak.

— Defentsa legalak, eta beste erakunde fisiko edo juridiko batzuek patentearen eskabideari, erabilgarritasun ereduari edo diseinuari aurkeztutako alegazioen erantzunak edo aurkakotasunak sortutako gastuak.

— Jabetza industrialaren bulegoetako urteko ordainketak.

Hainbat erakunderen artean lankidetzan garatzen diren proiektuak direnean, hura egiteko lankidetzan diharduten erakundeek egiten dituzten gastuak diru-laguntzaren oinarriak sartu ahal izango dira.

Aurkeztutako kostuak aztertzerakoan ikusten bada erakunde laguntzaileen aldetik onar daitezkeen gehienezko gastuak ezarritako mugatik gora daudela proiektua lankidetza-proiektutzat jotzeko (Dekretu honen 3. artikuluan, 2. atalean, d) eta e) baldintzetan xedatutakoaren arabera), Ekonomia Sustatzeko Sailak muga horietaraino gutxituko du erakunde laguntzaileen gastuetatik diruz lagun daitekeen oinarria.

18.000 eurotik (BEZik gabe) gorako kanpoko gastuak kasu honetan baino ez dira diruz lagun daitezkeen gastutzat joko: laguntza eskatzeko dokumentazioarekin batera gastu horri ezarritako zenbatekoa justifikatzen duen eskaintza, kontratua edo faktura aurkezten bada.

2014ko urtarrilaren 1aren eta 2016ko ekainaren 30aren artean sortzen diren gastuak diruz lagundu daitezke.

### 6. artikulua.—*Laguntzen zenbatekoa*

Kapitulu honetan ezarritako onurak ezarritako egitate eta diruz lagun daitezkeen gastuengatik itzuli behar ez diren diru-laguntzak dira.

Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatuko da ondoko portzentaje hauek diruz lagun daitezkeen gastuei aplikatuz, kostu motaren arabera:

| Kostu mota | banakako proiektuetan diru-laguntzaren % | | | lankidetza proiektuetan diru-laguntzaren % | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 71-100 puntu | 51-70 puntu | 50-35 puntu | 71-100 puntu | 51-70 puntu | 50-35 puntu |
| Kanpoko gastuak | 35% | 30% | 20% | 40% | 35% | 25% |
| Barneko langileria gastuak | 35% | 30% | 20% | 40% | 35% | 25% |

Gutxienez 35 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ezetsi egingo dira, laguntza ekonomikoa jasotzeko gutxieneko puntuaziora ez heltzeagatik.

Emandako laguntzen gehieneko zenbatekoak hauek izango dira erakunde eskatzaile bakoitzeko, lagundutako proiektu bakoitzean, erakunde eskatzaileak laguntza eskatzeko unean duen plantillaren arabera (urtean lanaldi osoaren baliokideak diren kopuruetan):

| Erakundearen plantilla | Laguntzaren gehieneko zenbatekoa | Laguntzaren gehieneko zenbatekoa barneko gastuengatik |
|---|---|---|
| 6 eta 50 lagun bitartean | 60.000 | 30.000 |
| 51 eta 100 lagun bitartean | 80.000 | 40.000 |

Lankidetza proiektu batean parte hartzeagatik diru-laguntza eskuratzen duten erakundeek (3.2 artikuluan ezarritakoaren arabera) ezin badute euren kabuz Dekretu honen onuradun izan (3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera), gehienez ere erakunde multzoari emandako diru-laguntza osoaren %20 jaso ahal izango dute.

Ez da 3.000 eurotik beherako diru-laguntzarik emango.

Jarduketa burutzeko unea zein ere den, laguntza aurrekontuko ekitaldi bati edo hainbati esleitu ahalko zaie.

### 7. artikulua.—*Burutzeko epeak*

Laguntza egitarau honetan aurkeztutako jarduerak 2013ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31ra bitartean hasi beharko dira eta 2015ko ekainaren 30a baino lehen bukatu.

— Gastos por implantación de cualquier sistema de gestión.

— Gastos por defensas legales y respuestas a las alegaciones u oposiciones de otras entidades físicas o jurídicas a la solicitud de la patente, modelo de utilidad o diseño.

— Anualidades ante las Oficinas de propiedad industrial.

En el caso de proyectos que se desarrollan en colaboración entre distintas entidades, se considerarán integrables en la base subvencionable del proyecto los costes incurridos por las diferentes entidades que colaboran en la realización de éste.

Cuando el análisis de los costes presentados arroje que los gastos máximos admisibles de las entidades colaboradoras superan los límites establecidos para la consideración de proyecto en colaboración de acuerdo al artículo 3, apartado 2, condiciones d) y e) del presente Decreto, el Departamento de Promoción Económica realizará una minoración de la base subvencionable de los gastos de las entidades colaboradoras hasta dichos límites.

Los gastos externos superiores a 18.000 euros (IVA no incluido) sólo se considerarán gastos subvencionables cuando junto a la documentación de la solicitud de ayuda se entregue oferta, contrato o factura del gasto que justifique el importe asignado a dicho gasto.

Se consideran subvencionables los gastos que estén devengados entre el 1 de enero de 2014 y el 30 de junio de 2016.

### Artículo 6.—*Cuantía de las ayudas*

Los beneficios contenidos en el presente capítulo son subvenciones no reintegrables por los hechos y gastos subvencionables establecidos.

El importe de las ayudas se obtendrá de la aplicación de los siguientes porcentajes, sobre la base de gasto que se considere subvencionable de cada tipo de coste:

| Tipo de coste | % de subvención en proyectos individuales | | | % de subvención en proyectos en cooperación | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 71-100 puntos | 51-70 puntos | 50-35 puntos | 71-100 puntos | 51-70 puntos | 50-35 puntos |
| Gastos externos | 35% | 30% | 20% | 40% | 35% | 25% |
| Gastos interno de personal | 35% | 30% | 20% | 40% | 35% | 25% |

Los proyectos que no obtengan al menos 35 puntos, serán desestimados por no alcanzar la puntuación mínima para ser apoyados económicamente

Las ayudas otorgadas no superarán los siguientes importes por entidad solicitante en cada uno de los proyectos apoyados, en función de la plantilla de la entidad solicitante en el momento de solicitud de la ayuda (en equivalentes anuales a jornada completa):

| Plantilla de la entidad | Importe máximo de la ayuda (€) | Importe máximo de la ayuda por gastos internos (€) |
|---|---|---|
| De 6 a 50 personas | 60.000 | 30.000 |
| De 51 a 100 personas | 80.000 | 40.000 |

Las entidades que obtengan subvención mediante la participación en un proyecto en cooperación de acuerdo a lo establecido en el artículo 3.2 y no puedan ser por sí mismas beneficiarias del presente Decreto conforme a lo establecido en el artículo 3.1 podrán recibir una subvención máxima no superior al 20% de la subvención total otorgada al conjunto de entidades de la agrupación.

No se concederán ayudas inferiores a 3.000 euros.

Independientemente del momento en el que se desarrolle la actuación, se podrá adjudicar la ayuda contra uno o varios ejercicios presupuestarios.

### Artículo 7.—*Plazos de ejecución*

Las actividades presentadas a este programa de ayudas deberán iniciarse entre el 1 de enero de 2014 y el 30 de diciembre de 2015 y finalizarse con anterioridad al 30 de junio de 2016.

cve: BAO-BOB-2014a230

### 8. artikulua.—*Eskabideak aurkezteko epea*

Eskabideak aurkezteko epea 2015eko martxoaren 2an hasiko da, eta 2015eko martxoaren 31n, 13:30ean, amaituko da -aurkezteko modua edozein delarik ere-.

### 9. artikulua.—*Gehienez egin daitezkeen eskabideak*

Erakunde bakoitzak, berak soilik garatutako proiektuetarako eskabide bat (1) aurkeztu ahal izango du. Beraz, eskabidea izaera orokorreko proiektu bati egokituko zaio.

Erakunde bakar batek garatutako proiektuak aurkeztu gorabehera, erakunde bakoitzak eskabide bat (1) soilik aurkeztu ahal izango du lankidetza proiektuetako buru gisa. Ez dago mugarik beste lankidetza proiektu batzuetan parte hartzeko, baldin eta proiektu horietan erakundea buru ez bada.

Lankidetza proiektuetarako eskarien kasuan, organo instruktoreak erabakiko du lankidetza halakotzat jo daitekeen ala ez Dekretu honen 3.2 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, eta jo ezin dela erabakiz gero, buru den erakundeari eskaria erakunde bakar batek egindako proiektu gisa berriro egiteko eskatu ahal izango dio.

Goian ezarritakoak baino eskari gehiago jasoz gero, organo instruktoreak beren artean zerikusia duten eskariak taldekatu ahal izango ditu, batera ebaluatuko den baterako proiektu bat taxutzeko.

### 10. artikulua.—*Balorazio irizpideak*

Onuradun izateko baldintzak betetzen dituztela frogatzen duten enpresetatik, baloraziorik onena lortzen dutenek jasoko dituzte diru-laguntzak, honako irizpide hauen arabera:

### Artículo 8.—*Plazo de presentación de las solicitudes*

El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el 2 de marzo de 2015 y finalizará a las 13:30 horas del día 31 de marzo de 2015, independientemente de la vía de presentación.

### Artículo 9.—*Máximo de solicitudes*

Cada entidad podrá presentar una (1) única solicitud para proyectos desarrollados únicamente por ella. La solicitud corresponderá, en consecuencia, a un proyecto de carácter integral.

Independientemente de la presentación de proyectos desarrollados por una única entidad, cada entidad podrá presentar una (1) única solicitud como líder de proyectos en colaboración. No existe limitación para participar en otros proyectos en colaboración en los que la entidad no sea la líder del proyecto.

En el caso de solicitudes para proyectos en colaboración, el órgano instructor apreciará si la colaboración puede calificarse como tal de acuerdo a lo establecido en el artículo 3.2 del presente Decreto y, en caso contrario, podrá solicitar a la entidad líder la reformulación de la solicitud como proyecto realizado por una única entidad.

Si se recibieren más solicitudes de las arriba establecidas, el órgano instructor podrá agrupar aquellas solicitudes relacionadas entre sí, para conformar un proyecto unitario que sea evaluado de forma conjunta.

### Artículo 10.—*Criterios de valoración*

Las subvenciones se otorgarán, dentro del límite presupuestario disponible, a quienes obtengan mayor puntuación de entre quienes hubieran acreditado cumplir los requisitos necesarios para ser beneficiarias, de acuerdo a los siguientes criterios, con las ponderaciones señaladas:

| | Irizpidea eta azpi-irizpidea | Gehieneko puntuazioa |
|---|---|---|
| 1. | Lehiakortasunaren hobekuntza eta erakundearen negozio-ereduarekiko koherentzia | 40 puntu |
| a. | Proposamenaren izaera integratzailea eta proiektuak erakunde eskatzailearen -eta, egongo balira, erakunde laguntzaileen- estrategiarekin eta ikuskerarekin duen koherentzia eta harremana. | 20 puntu |
| b. | Proiektua elkarren arteko loturarik ez duten hainbat eskatzaileren arteko lankidetzan garatzea eta proiektuak erakunde eskatzailearen gaitasun eta jarreretan duen eragina, beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzeari dagokionez | 15 puntu |
| c. | Eskatutako eraldaketaren sakontasuna, erakunde eskatzaileari eta laguntzaileei (egongo balira) eskatzen dien ahalegin maila eta apustua. | 5 puntu |
| 2. | Berrikuntza eta partaidetza maila (proiektuarena) | 35 puntu |
| a. | Proiektuak erakunde eskatzailearen nahiz erakunde laguntzaileen (egongo balira) jarduera-sektorearentzat dakarren berritasun maila | 20 puntu |
| b. | Proiektuaren emaitza gisa erakunde eskatzaileko eta erakunde laguntzaileetako (egongo balira) pertsonengandik espero den parte-hartze eta autonomia maila | 10 puntu |
| c. | Industria-diseinuarekin lotutako aspektuak dituzten proiektuak, industria-sektorearen eremuan espezializatuta dauden enpresek garatutakoak (CNAE 2009 7410.2 epigrafean jasotzen dira). | 5 puntu |
| 3. | Kanpoko eragina (proiektuarena). | 20 puntu |
| a. | Erakunde eskatzailearen eta erakunde laguntzaileen (egongo balira) hazkunde eta sendotze potentziala | 10 puntu |
| b. | Erakunde eskatzailearen lehiakortasuna hobetzeak ustez izango duen eragin-maila -eta erakunde laguntzaileena, egongo balira- | 5 puntu |
| c. | Eragina sortzeko espero den epea eta sortutako lehiatzeko abantailen irauteko gaitasuna | 5 puntu |
| 4. | Erakunde eskatzailearen konpromisoa ingurumenarekin, gizarte erantzukizunarekin eta berdintasunaren sustapenarekin | 5 puntu |

| | Criterio y subcriterio | Puntuación máxima |
|---|---|---|
| 1. | Mejora de la competitividad y coherencia con el modelo de negocio de la entidad solicitante | 40 puntos |
| a. | Carácter integrador de la propuesta y la coherencia y relación del proyecto con la estrategia y la visión la entidad solicitante, así como en la estrategia y la visión de la entidades colaboradoras en el caso de que las hubiera. | 20 puntos |
| b. | El desarrollo del proyecto en colaboración entre distintas solicitantes no vinculadas y la incidencia del proyecto en las capacidades y actitudes de colaboración de la entidad solicitante con otras entidades. | 15 puntos |
| c. | La profundidad de la transformación exigida y la apuesta que exige a la entidad solicitante, y a las colaboradoras en el caso de que las hubiera. | 5 puntos |
| 2. | Grado de innovación y participación (del proyecto) | 35 puntos |
| a. | El grado de novedad que supone el proyecto para la entidad solicitante, y para las entidades colaboradoras en el caso de que las hubiera, y dentro del sector de actividad de la entidad solicitante. | 20 puntos |
